


Lezoko zine agenda

URRIA

OCTUBRE


2004



Gezala

AUDITORIUMA


800
zine ma



IRREVERSIBLE

Bi talde sortzen dituen horietakoa da filme hau. Zuzendariak apustu arriskutsua egin zuen probokazioz beteriko proposamena eskainiz. Joera berriak aztertu nahian edo eskandalu bidezko publizitate errazaren bila? Dena dela, filmea ikustera hurbiltzen bazara eszena gogorrak, historia gordina eta testuinguru itogarriak topatuko dituzu. Jende asko omen da filmea amaitu aurretik aretotik atera dena. Hainbestera ote?


2002, Frantzia 97 min. Gaspar Noé.
Monica Bellucci, Vincent Cassel, Albert Dupontel, Jo Prestia.



LOS 400 GOLPES

50. hamarkadan Frantzian, "Cahiers du Cinema" zineari buruzko aldizkari ezagunean idazten zuten kritiko batzuk pelikulak egiten hastea erabakitzen dute: Truffaut, Godard, Chabrol, Rohmer... 'La nouvelle vague' bezala ezagutu zen mugimendu hori. "Los 400 golpes" korrente berri horrek egindako pelikula esanguratsuenetakoa da. 1959an Cannes-en lehen saria lortu zuen, antolatzaileek aurreko urtetan Truffaut gaitzetsi bazuten ere. Zinemaren historian klasiko handi bat!

1959, Frantzia 94 min. F.Truffaut.
Jean-Pierre Léaud, Claire Maurier, Albert Rémy, Guy Decomble.



LA VIDA SOÑADA DE LOS ÁNGELES

Isa eta Mariek elkar ezagutzen dute ehundegi batean. Bata motxila batekin hiriz hiri dabil eta dirua lortzeko tarteka lan egin behar du. Bestea, etxe batean bizi da Lillen. Elkar ezagutuko dute eta harremana gero eta estuago izatera iritsiko da. Gai sozialak hain ongi lantzen dakizkien zinema frantziarrak ez dizu berriro ere kale egingo. 1999an Frantziako 3 Cesar sari jaso zituen.


1998, Frantzia. 113 min. Eric Zonca.
Elodie Bouchez, Natacha Régnier, Grégoire Colin, Patrick Mercado.



CAYO LARGO

Humphrey Bogart, Laurent bacall eta Edward G.Robinson dira pelikularen protagonista nagusiak. John Huston zuzendaria. Zer gehiago behar duzu zinema batetara hurbiltzeko? Txuri beltzean filmatututako (nola ez ba?) zine beltz hoberenetakoa! Gansterak, antiheroiak eta pitzadurarik ez duen historio sendo eta bikaina. Klasikoak klasiko zergatik bilakatzen diren jakin nahi duzula? Erantzuna badakizu non aurkitu.

1948, EEBB 101 min. John Huston.
Humphrey Bogart, Edward G. Robinson, Lauren Bacall, Lionel Barrymore.



ED WOOD

Zinemaren historia guztia kontuan hartuta, Ed wood omen zen zuzendaririk txarrena. Txuri-beltzean filmatutako Tim Burton 'eroaren' pelikularik interesgarrienetakoa izango da ziurrenik. Aktore-multzoa aipatzekoa da, Martin Landareuna bereziki. 50. hamarkadako zinemari omenaldi oso txukuna da "Ed Wood" hau. Bi Oscar irabazi zituen 1995ean.


1994, EEBB 127 min. Tim Burton.
Johnny Depp, Martin Landau, Sarah Jessica Parker, Patricia Arquette.



UNA HISTORIA DEL BRONX

Calogeroak, Bronxeko kaleetan bizi den haurrak, bi eredu ditu heldutasunerako bidean: hiritar zintzoa izatera iristea nahi duen aita, batetik. Bestetik, auzoko mafia buru den Sonnyrena. Haurrak bietatik ikasiko du. De Nirok zuzendu zuen lehen pelikula hau beraren biografian oinarritua ote den diote. Scorsese bere lagunaren eragina nabaria da ia arlo guztietan.


1993, EEBB 121 min. Robert de Niro.
Robert de Niro, Chazz Palminteri, Lillo Brancato, Francis Capra.



PROMISES

9-13 urte bitarteko haur palestinar eta israelarren begietatik hango egoera konplexu eta gogorra ezagutzeko aukera berri bat da dokumental hau. Zazpi haur ezberdinek beren ikuspuntutik bere eguneroko bizitzaren berri ematen dute, helduen arteko borrokak sortzen dituen egoera asko zein absurdo izatera iritsi daitezken salatuz. Sari asko jasotako dokumentala bada ere, ez zuen Oscarra lortu...

2001, EEBB. 106 min. Justine Shapiro, B.Z. Goldberg & Carlos Bolado.
Dokumentala.



OCHO MUJERES

Zortzi emakume batera elurrez inguraturiko etxe batean isolaturik. Horietako baten senarra hilda azaltzen da bere ohean. Nor izan da? Zergatik? Zortzi emakumeren artean nola argituko dute gaia? Frantziar zinemako zortzi aktorea ezagunenetakoa irri-farra eragiten duen pelikula kurioso batean. Bakoitzak kanta bat abesten du... Benetan bitxia eta koloretsua.


2002, Frantzia, Italia. 111 min. François Ozon.
C. Deneuve, I. Huppert, E.Béart, Fanny Ardant, V.Ledoyen.



SORGINEN MADARIKAZIOA

Sorgin guztiak gaiztoak omen dira eta historia honetakoa ez da gutxiago izango. Plan berezi bat du: ume guztiak sagutxu bihurtzea. Umeen aurkako gogorkeriei aurre egiteko edabe magikoa prestatuko du Anjelica Huston sorgin paregabeak. Sorginen krudeltasuna handia izanda ere, zalantzarik ez izan abentura berri honetan haurrek ez dutela galduko!


1990, EB. 91 min. Nicolas Roeg.
Anjelica Huston, Mai Zetterling, Jasen Fisher, Jane Horrocks.



DRAGON HILL. DRAGOIAREN MUINOA

Adi haurrak! Dragoi historia zoragarria kontatzen digute marrazki bizidun hauek! Dragoien muinoa fantasiatzko mundua da. Gizakien gaiztakerietatik ihesi doazen dragoiek leku hau aukeratzen dute babesteko. Dragoien muinora sartzeko lau ate igaro behar dira: sua, ura, lurra eta airezkoa. Ethelbert dragoi zaharra da zaindari nagusia eta berak ditu bertan sartu edo handik irtetzeko giltzak... 2003ko Goya edizioan animaziozko filme hoberenaren saria jaso zuen.

2002, Espainia 80 min. Ángel Izquierdo
Marrazki bizidunak.



HIRUKIAK 2

Lehendik ere Lezon ezagunak dira hirukiak. Bi abentura berri dakartzkite oraingoan: “Robinson Crusoe” eta “Hiru txerritxoak”. Helduak garenontzako nahikoa pertsonai ezagunak badira ere, gaztetxoentzako oso aurkikuntza interesgarria eta atsegina izan daiteke.

2002, EH. 70 min. Hainbat.
Marrazki bizidunak.



UNIBERTSOLARIAK

Unibertsolari borobilak unibertsoan bizi dira bere izenak dioen bezala. Juanjo Elordiren zuzendaritzapean, Unai Iturriaga bertsolariaren gidoiarekin, marrazki bizidun hauek arrakasta handia izan dute Euskal Herriko zinematan. Satur, Karratu, Maripipi sorgina Boroville-n bizi dira eta Plutonentzako kanikaz osatutako opari bat prestatzen ari dira. Saturrek irrist egin eta gero, hautsi egingo du nahigabea...

2003, EH. 45 min. Juanjo Elordi.
Hainbat.

URRIA - octubre

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 7	22:00	IRREVERSIBLE
LARUNBATA 9	22:00	ED WOOD
IGANDEA 10	16:30	SORGINEN MADARIKAZIOA
OSTEGUNA 14	22:00	LOS 400 GOLPES
LARUNBATA 16	22:00	UNA HISTORIA DEL BRONX
IGANDEA 17	16:30	DRAGON HILL. DRAGOIAREN MUINOA
OSTEGUNA 21	22:00	LA VIDA SOÑADA DE LOS ÁNGELES
LARUNBATA 23	22:00	PROMISES
IGANDEA 24	16:30	HIRUKIAK 2
OSTEGUNA 28	22:00	CAYO LARGO
LARUNBATA 30	22:00	OCHO MUJERES
IGANDEA 31	16:30	UNIBERTSOLARIAK


ESKANDINABIAKO ZINEMAREN HILABETEA

eguna/día	ordua/hora	pelikula
ASTEARTEA 5	22:00	EUROPA
ASTEARTEA 12	22:00	UNDER THE SUN
ASTEARTEA 19	22:00	ELLING
ASTEARTEA 26	22:00	ITALIANO PARA PRINCIPIANTES

ESKANDINABIAKO ZINEMAREN HILABETEA

Eskandinabiar zinematat hitz egitea gehiegi izan daiteke oraingoz. Ez daude irizpide edo ildo amankomun batzuk eskola edo zine korrente izan daitekeen zerbait dagoela pentsatzeko. Ipar Europako herrialdeetan egiten ari den zinemaren erakusleho izatea du helburu ziklo honek beraz. Ikuspuntu horretatik Suedia, Norvegia edo Danimarkako ekoizpenen berri izateko aukera paregabea dugu Lezon hilabete honetan.


Oso izaera eta historia ezberdinez egingako filmak osatzen dute ziklo hau eta horietako zinegile batzuk jada zinemaren historian sartzeko bidean dira egin dituzten ekarpenengatik. Lars von Trier izan daiteke esandakoaren adibiderik nabariena. Denak ez badira ere, ez ezazu eskaintzen direnetako batzuk ikusteko aukera galdu! Sorpresa atseginak dituzu zain!



EUROPA

Zinema munduan azken urtetan izan diren ekarpen garrantzitsuenetarikoen ardura Lars von Trier zuzendari daniarrarenak izan dira. Bai zine esperimentatzaile moduan "Dogma 95" izena duen mugimenduaren sustatzaile bezala, bai parametro ohikoagoetan egindako filme kritikoak medio, Trier beti da interesgarria. "Europa" honetan alemaniak gerra ondoren izan zuen egoeraren eta bilakaeraren berri ematen du. Alemaniako (eta Europako) historiaren une interesgarrienetarikoa zuzendari paregabe honen ikuspuntutik ezagutzeko aukera ona.


1991, Suedia, Danimarka. 112 min. Lars von Trier.
Jean-Marc Barr, Barbara Sukowa, Udo Kier, Ernst-Hugo Järegård, Erik Mørk.



UNDER THE SUN

1956. urtea da eta Olof bakarrik bizi da bere baserrian. Egoerarekin haustea erabakitzen du eta iragarki bat jartzen du egunkarian: "Nekazari bakartia, 39 urte, kotxe baten jabe, etxeko andre gazte baten bila, argazkia eskertuko da". Gezurra dirudien arren, erantzunak jasoko ditu. Ellen, 34 urteko, hirian bizi den emakumea aukeratuko du. 2000. urtean Oscar sarietarako izendatu zuten, atzerriko hizkuntzean egindako filmen sailaren barruan. Paddy Moloney-k (The Chieftains) egindako musika.

1998, Suedia. 130 min. Colin Nutley
Rolf Lassgård, Helena Bergström, Johan Widerberg, Gunilla Rööf.



ELLING

Elling eta Kjell Bjarne-k psikiatrikoan igaro dituzte azken urteak. Orain, medikuen ustez, pisu batean beraiek bakarrik bizitzeko gai dira. Oslo, hiriburuan, etxe bat utziko diete eta bi lagunak euren kabuz bizitzaren ikasi beharko dute. Lehen kolpean melodrama bat badi-rudi ere, umore oso atseginaz kontatutako istorio oso entretenigarria baten aurrean aurkitzen gara. Sari ugari jasotako filmea (esate baterako Donostiako zinemaldian 2001ean), Norvegian egiten den zinemaren erakusgai egokia (eta ia bakararra) da "Elling".

2001, Norvegia. 89 min. Petter Næss.
Per Christian Ellefsen, Sven Nordin, Marit Pia Jacobsen, Jørgen Langhelle.



ITALIANO PARA PRINCIPIANTES

Hau ere sariz jositako (2001eko Berlingo zinemaldian 4 jaso zituen, SEMINCI 2,...) pelikula da. Filme honen abiapuntua "Dogma 95" mugimenduaren arauak dira. Danimarkako hiri batetara apaiz bat iristen da. Bere afizioa italiar hizkuntza denez eskolak jasotzeko ikastaroetan ematen du izena. Bere ikaskideek eta horien bizitzak osatuko dute filmearen istorioa. Sei pertsonai eta denek amankomunean dutena, euren bizitza sentimentala hausteko gaitasuna...

2000, Danimarka, Suedia. 112 min. Lone Scherfig.
Anders W. Berthelsen, Anette Støvelbæk, Ann Eleonora Jørgensen, Peter Gantzler.

Rosa M^a Martí

urriak 15 ostirala 17:00

Hilabete honetan ere, txikienak izango dute bere tartea. Kasu honetan oso ezaguna den ipuin kontalaria izango da gurekin: Rosa M^a Martí. Entzumena eta irudimena dastatzeko aukera paregabea, baina ez soilik haurrentzat. Ikasi nahi duenak —eta nork ez du ikasi nahi— ipuin kontalarien artea dastatzeko aukera du, Hori bai, lurtean eseri gabe, aulki ederretan, antzerkia bailitzan, etxeko txikienak laguntzen.



2003ko emakunde saria

urriak 15 ostirala 20:00

Hindu. Amets askea. Saharako Emakumeen Batasun Nazionala 1974an sortu zen. Ideologiaz eta ekinbidez, askatasuna eta autodeterminazioaren aldeko ezinbesteko batasun-lanak bultzatuta izan zuen abiapuntu. Batasuneko bi emakumeek hurbilduko gaituzte Tinduf-eko (Algeria) lurraldera bere historia kontatzeko.

Gure artean Estatuko diaporama egile hoberenetakoa den Kepa González gasteiztarrek eskainiko duen zikloaren hasiera izango da hau. Datozen hilabetetan izango du jarraipena.

Zu gogoan eramango zaitu. Zuk gure historia daramazu...



"Pakita"

urriak 22 ostirala 22:00

Joan den urtean izan genuen obra hau Lezon eskaintzeko estreinakoz. Asmoa bai baina konpainiak azken orduan ezin izan zuen. Honako honetan, Kutzaren laguntzarekin, Pakitaren historia doan izango da. Baina, ze Pakita? Zein da Pakita? Pakita, urtetan sartuta dagoen emakumea da. Une honetan bakarrik aurkitzen da eta, ondorioz, kafea barra-barra edaten du. Maitemindua dago, baina maitasuna....



Jorge Sánchez eta Eva Niño

urriak 29 ostirala 22:00

Honakoan Jorge Sánchez kubatarra eta Eva Niño nafarra. Instrumentuak bi: gitarra eta biolontxelo. Musika ... troba kubatarra maitatzen dutenentzat proposa. Ez galdu bikote gazte hau ikusteko aukera. Trobadoreen sentimenduak ongi adierazten dituzte eta abesti ugarietan, gitarra eta biolontxeloaren arteko elkarriketak laguntzen du.

